

### 2.1.3.- Lerroko Mendi Lasterketen Euskal Herriko Txapelketa.

### 2.1.6.- Mendi Lasterketen Euskal Herriko Proba Konbinatua.

Mendi-lasterketen modalitate bakoitzeko lasterketa batez dago osatuta Proba Konbinatua, hau da, lerroko mendi-lasterketen, lasterketa bertikalen eta ultra trail lasterketen modalitateetako lasterketa banaz.

Hiru lasterketek puntuazio bera izango dute, oinarrizko puntuazio-taulan ageri denaren arabera.

Proba Konbinatuko Koparako modalitate bakoitzaren araudia indarrean dagoen araudi honetan modalitate bakoitzari dagokion atalean zehazten dena izango da.

### 2.3.2.- Sailkapena

Proba Konbinatuaren azken sailkapenerako, ezinbestekoa izango da lasterketa guztietan parte hartzea, eta hiru lasterketen emaitzak hartuko dira kontuan. Kadete eta junior kategoriak salbuetsita daude, horiek lerroan egiten diren lasterketen eta lasterketa bertikalen modalitatean soilik parte hartu ahal izango baitute.

Proba Konbinatuan berdinketa gertatzen bada, denborak batuko dira, eta zirkuitua egiteko denbora gutxien behar izan duen lasterkaria izango da irabazlea.

Kopako azken podiumean sartzeko, ez da beharrezkoa gutxieneko lasterketa kopuru batean parte hartzea. Kopa Konbinatuan salbu, proba osatzen duten hiru lasterketetan parte hartu beharko baita.

Mendi Lasterketen Euskal Herriko kopetan, txapelketetan eta probetan puntuak lortu ahal izateko, partaideek EMFren lizentzia izan behar dute, edota Mendi eta Eskalada Kirolen Nafarroako Federazioarena (Nafarroako Federazioa). Erantzukizun zibileko aseguruia kontratatuta dutela eta beharrezko estaldura duen istripu-aseguruia badutela erakutsi behar dute lasterketa hasi aurretik. Klubek EMFko edota Nafarroako Federazioko kide izan behar dute.

~~Mendi-lasterketak mendiko federazioa ez den beste federazio batek arautzen dituen lurraldeetako lasterkariak eta klubek lurralde horretan mendi-lasterketak arautzen dituen federazioaren lizentzia izan behar dute, edota federazio horretako kide izan behar dute. EMFri emango zaio horren berri, eta proba egin aurretik onartu behar du EMFk.~~

Kopako eta Proba Konbinatuko azken sailkapenerako, egutegiko lasterketa guztiek puntuatuko dute.

Podiumean sartu ahal izateko, ezinbestekoa da Euskal Herrian erroldatuta egotea.